

Jean Elizalde «Zerbitzari»

BI GOGORRAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Inazio Mujika Iraola.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00379.htm>

Jostarazleak

JAUREGI, 60 urthe

GANIX, 20 urthe

PIARRES, 25 urthe

ZERBITZARIA, 40 urthe.

OHARTGARRIA.— Ostatu batean doa eskual-jostagailu hau bururen-buru. Ongi litake Jauregi xamar batekin jauntz dadien; Zerbitzaria, ostatuetako zerbitzariak jaunzten diren bezala; Ganix eta Piarres, athorra maunka has, mokanes gorri lana lephoan. Jostarazleek behinere ez lukete ahortzi behar deus ez dela ikusleentzat zozoago eta unhagarriago jostarazlea, itzea iduri, mugitu gabe egotea baino. Higitu behar da, higitu norapeit, mundua irri egiterat ethorria denaz geroz, ase bat ona egin dezan.

BILDUMA

Jauregi pegar zahar bat bezen gogorra baita, ez du suhizat gogor bat baizik nahi. Ganix pilo-

taria arras gustukoa luke segurki, bainan... ez da gogorra. Hainbertzenarekin buruz-buru egiten dute gure bi gizonek: niholaz ez dute haatik elgar aditzen ahal. Pilotari lagun batek Ganixi bururat ematen dio gogorrarena egin dezan beraz. Baduk hoberik! Hain xuxen arte hortan Jauregi sendatu da eta ez du gehiago etxean gogorrik nahi. Ez dio beraz alaba emanen Gani-xi? Ba, palabra ederren ondotik, Piarresek oro antolatu baititu! Ganixen aufak!

Eskual-jostagailu hau Blazy Uztaritzeko jaun apez nausiari eskaintzen dio

EGILEAK

BI GOGORRAK

(Eskual-Jostagailua)

I

PIARRES: Erran bezala beraz, Ganix?

GANIX: Bai, erran bezala.

PIARRES: Igandean bezperak ondoan hi eta ni bi Bidartar hoberenen kontra, ehun liberaz?

GANIX: Ez diat egundaino hitz bat baizik izan, nik!

PIARRES: Bazakiat, bazakiat!... Igande arte beraz.

GANIX: Igande arte. Bainan hik ere atxikak gero hire hitza?

PIARRES: Zer hitz?

GANIX: Jada ahantzia duk? Maitenaz aiphatua!

PIARRES: Ba, ba, segurki! Hik ere etzak haatik ahantz Jauregi zaharrak ez diola bere alaba emanen, berritz ere erranen daiat, bera bezala beharriz gogor edo bederen gogorsko den bati baizik! Hortan, agur Ganix!

Ahal dutana hire alde eginen diat, nik ere!...

(Hortan, Piarres badoa kamporat).

GANIX: Hori gizonaren atheraldia! Ha, ha, ha, ha! Ba, badakit Jauregi kauteraeneko pertza handia bezen gogorra dela! Nork ez daki? Bainan zertako ez lioke bere Maitena polli-ta gogor bati baizik eman behar? Nik ez dezaket sinhets hori!

Funtsean, laster jakintsun naiteke; hain xuxen horra Jauregi ostatuari buruz heldu. Mama xuria aski maite baitu, etzaut pinta pare bat baizik gostako.

(Kask kask mahainean jotzen du eta oihu egiten) Arnoa hunat?

ZERBITZARIA: Oihu egin duzu?

GANIX: Ba, berehala ekarratzu pinta bat arno xuri eta bizpahirur baso, zer gerta ere!

(Zerbitzaria badoa eta sartzen da Jauregi. Ez ahantz gogorak oihuka mintzatzeko direla!).

II

JAUREGI: Agur, Ganix. Bakarrik ostatuan?

GANIX: Laguna doidoia atheratua dut. Ez duzu bide hortan buruz-buru egin?

JAUREGI: Norekin arizan buruz-buru?

GANIX: *(Gero eta gorago mintzatuko da).*- Ez, enuen hori erraten! Piarresekin nitzela!

JAUREGI: Piarresekin arizan hiz buruz-buru? Aise irabazi diok hik hari?

GANIX: Ikusi duzunez galdatzen nautzun?

JAUREGI: Nun arizan zaizte? Haltsun?

(Zerbitzaria sartzen da bere arno eta basoekin).

GANIX: *(Berex mintzo)* Hau gizon pekada! Urrikari dut hunen alaba gaixoa!

ZERBITZARIA: Errazu berritz!

(Zerbitzaria berehala badoha kamporat).

JAUREGI: Zer erran dik? Ari behar duzuela berritz?

GANIX: *(nardatzen hasia)* Ezetz, gizona!

JAUREGI: He?

GANIX: He eta me, arno hau hauta dela, *(artean trago bat)* bainan laster edan beharra!

JAUREGI: Ba, ba, meharra duk Piarres, bainan hats handia dik eta etziok nor-nahik irabaziko!

GANIX: Jauregi, hobe duzu kadira hortan jarririk, bertze trago baten edatea, arnoa hoztu gabe!

(Trinkaturik berritz edaten dute).

JAUREGI: Zer jokutzen zinuten?

GANIX: *(Berex mintzo)* Hau zer lana hartu dutan, gaizo Ganix!... *(Jauregui oihuka)* Zer jokutzen ginuen? Zure Maitena politaren bihotza! *(berex)* To, atxemak!

JAUREGI: Hogoia liberako bildotsa?

GANIX: Maitenaren bihotza!

JAUREGI: Noiz behar duzue jan?

GANIX: Maitenaren bihotza!

JAUREGI: Zer? Jada erretzen ari dela eta sarri janen duzuela hotza?

GANIX: Jesu, Maria eta Josepe! Zerk ekarrarazi daut gizon dohakabe hau hunat?

JAUREGI: Ni izanen naizela zuen hirugarren laguna? Milesker, Ganix, milesker! Gogorra bahintz zoin gogotik hartuko hindukedan suhitzat, hi!...

GANIX: Gaurko bildotsak ez dautzu kalterik eginen, eiki, demuntren pekada! Agur, Jauregi!

(Errabia gorrian, Ganix badoa kamporat, gibeletik harritua dagokiolarik Jauregi).

JAUREGI: Zer ulik ausiki daut neri Ganix, holako mukurrean joateko! Zertan egin othe diot huts? Ala ba othe du burutik? Beha dezagun zoin alde hartzen duen? Trago bat edan-eta haatik!!!

(Atheari buruz abiatu deneko, huna Piarres).

(Bere astia hartuko du Jaureguik, Ganix eta Piarres mintzo ditena).

III

JAUREGI: To, Piarres!

PIARRES: Mandatu bat banuen Ganixentzat, Nun da?

JAUREGI: Zer?

PIARRES: *(Oihuka)* Nun-den-Ga-nix?

JAUREGI: Nor nun den?

PIARRES: Ganix... Ganix... Ganix!

JAUREGI: Nun den Ganix? Doidoia juana diat, zazpi bipher gorri iretsi balitu bezen laster! Ez duk athean buruz-buru egin?

PIARRES: Segur naiz bere buruaren kontra errabian joan dela, etzintuelakotz aditzen! Pilota ukaldi bat harturik gogortua da!

JAUREGI: Gogorra naizen? Hori ez dakik oraino?

PIARRES: *(Apalsko)* Ba, aspaldi, gizon astoa!

JAUREGI: Preseski! Etxeko astoak uztar bat emanik!

PIARRES: (*Oihuka*) Ganix ere hala dela!

JAUREGI: Nor zer dela?

PIARRES: Ganix ere gogorra dela eta hortako joan dela kampoat!

JAUREGI: Ganix gogortu? Noiz?

PIARRES: Atzo.

JAUREGI: Noiz?

PIARRES: Atzo... atzo... atzo!

JAUREGI: Jainkoari eskerrak! Maitenarentzat senhar gogor baten bilha bainindabilan, horra nere gizona! Lasterka eskaintzerat banoakiok!

PIARRES: (*gibeletik*) Abil, abil, apo beltza! Gani-xek eta nik jada bazakiagu elgarren berri: athe gibel hortan mintzatua diat... eta berritz hik baino lehenago mintzatuko! (*Bertze athetik oihuka*). Ganix! Ho Ganix! haugi laster, eskuan diagu xoria!

(*Ganix sartzen da*).

IV

GANIX: Ifernuko debru guziak hirekin dituk hik naski, Piarres!

PIARRES: Eta debru horiekin guziekin ez othe nauk aingeru begirale bat hiretzat? Egia erran behar daiat haatik: irri-egingarri zautak mendia bezalako gizon bat nigarra begian ikustea! Eta zeren gatik nigarrez? Neska tzar baten gatik...

GANIX: Piarres, enekin berehala samurtu nahi ez baduk, etzakala gaizkirik erran Maitenaz!

PIARRES: Ez, gaixo maitea, ez! Bazakiak hiretzat zeruan ez dela aingerurik Maitena bezalakorik! Pollita, ixila, langilea, garbia eta zer ez duk oraino!

GANIX: Trufa hadi, Piarres, trufa hadi nahi dukan bezenbat, bainan Maitena zer den nahi baduk jakin, hoa jaun erretoraren ganat eta eni bezala erranen daik, ez duela urri-kari harrekin ezkonduko den gizon gaztea!

PIARRES: Hobe segurki hiretzat, adixkidea! Adituk haatik Jauregi athe gibel hortarik? Ez hau suhitzat hartuko nun ez haizen gogor!

GANIX: Hik sinhetsarazi diokanaz geroz hala naitzela!

PIARRES: Ba, bainan hiri zagok orai berari frogatzea hala haizela!

GANIX: Nola ordean?

PIARRES: Gogorrarena eginez harekin! Aski diok zerbeit erraten daukan aldi guzietz makur ihardestea! To, aski diok Gure Aita bururen buru erratea!

GANIX: Hori lan errexa diat!

PIARRES: Ikusiko diagu. Hain xuxen horra nun heldu zaukun bixi-bixia eta irria ezpaintedan. Berma hadi! Zer gerta ere, ni athe gibelean egonen nauk...

GANIX: Zer saltsa egin behar othe diagu orai bi gogorrek?

(Piarres badoa alde batetik eta Jauregi sartzen da bertzetik).

V

JAUREGI: Nun da zure adixkide Piarres?

GANIX: He?

JAUREGI: Nun den Piarres?

GANIX: Nor arizan den nigarrez? Zu? Zertako?

JAUREGI: Ni nigarrez? Ez, futxo! Zure etxean sartzean kaskako bat buruan harturik beharriak ideki baitzaizkit egundaino bezala!

GANIX: (*berex mintzo*) Lehen gogorra bartzen, burutik joan othe zaut orai? (*Jauregui oi huka*). Zer erran duzu? Eliza gizona naitzen?

JAUREGI: (*berex mintzo*) Gaizo dohakabea! (*Ganixi*). Orai aditzen dutala egundaino bezala!

GANIX: Nungo oiloari hautsi diozu hegala?

JAUREGI: Berriz ideki zautala beharria!

GANIX: Harri ukaldika hautsi diozu hegala?

JAUREGI: Zoin urrikgarri den gogorra, oi zeruko aita!

GANIX: Badakitan Gure Aita?

JAUREGI: Gaizo Ganix!

GANIX: Ba, badakit: Gure Aita zeruetan zarena...

JAUREGI: Ganix, ez da harritzeko doidoia ez badugu elgar aditu!

GANIX: Erabil bedi sainduki zure izena...

JAUREGI: Eskual-Herriko pilotari ederrena izana gatik, ez diot Ganixi Maitenarik ematen ahal!

GANIX: Ethor bedi zure erresuma...

JAUREGI: Aski, Ganix, aski!!!

GANIX: Ikusten duzu badakitala?

JAUREGI: Ba, ikusten dut! Bainan amets eder bat egina bainuen Ganix, zuri fidatzeko Maite-naren bihotza...

GANIX: Oiloarekin janen dugula bildotsa?

JAUREGI: Ni nintzen baino ere gogorrago zare, Ganix!

GANIX: He?

JAUREGI: Mila urriki badut, bainan ez duzu ukanen nere alabarik! Bertze norapeit heda zatzu zure sareak!

GANIX: (*berex*) Ni zertan froga ari da! (*Jauregui-ri*). Deus ez dut aditzen, mintza zaite goraxago, ahapetik arizan gabe hola!

JAUREGI: Ganix, nihundik ez dugu aditzen ahal! banao etxerat!

GANIX: Zer diru ekarriko dutan zure etxerat?

JAUREGI: Agur, Ganix, agur, Urak eginen du bide ni zure ganat berritz hurbildu arte!

(Jauregi atheratzerat doalarik, Piarres sartzen da oro aditurik. Ganix xoko batean egonen da, beharriak zirika eta zirika oilo luma handi batekin).

VI

PIARRES: Norat zoazi, Jauregi?

JAUREGI: Etxerat.

PIARRES: Ganixi Maitena hitzemanik?

JAUREGI: Ez, eiki, pegar zahar bat baino gogorrago baita!

PIARRES: Jar zaite hor, bi elhe egin detzagun. Iku-siko duzu berehala Ganixen gaitza zurea bezen senda errexeta dela! Atseginekin karrikan ikasi dut zu sendo eta arras sendo zarella!

JAUREGI: Ba, eta ez dutala gehiago suhi gogorrik nahi!!!

PIARRES: Berritz ere erraten dautzut Ganix arras senda errexela!

JAUREGI: Lurdeko ama Birjinarentzat, ba!

PIARRES: Arruntzako Jainko ttipiak ere sendatzen ditu-eta holako gaitzak, gizona!

JAUREGI: Noiztik?

PIARRES: Egundainotik!

GANIX: (*berex mintzo*) Aldi huntan irabazi behar diat naski auzia! Aufa!

PIARRES: Jauregi, gaitzikor zare?

JAUREGI: Batere...

PIARRES: Badakizu trufa hartzen?

JAUREGI: Trufa hartzen ez dakien gizona, ez duk gizona.

GANIX: (*berex mintzo*) Ba, ba segadan sartu behar du xoriak! Aufa!

PIARRES: Hori da Eskualdunki mintzatzea! Etzi-nuen doidoia erran beharrik, Maitena ez diozula gehiago gogor bati eman nahi! Jada athe gibel hortarik aditua nuen...

JAUREGI: Zertako galdegin dautak beraz eia Ganixi hitzemana nion?

PIARRES: Zerbeitetarik hasi behar bainuen elhe hau! Beraz zure azken hitza da ez duzula gogorrik nahi etxean?

JAUREGI: Ez, debruentxo, ez!

PIARRES: Eta Ganix sendatzen balitz?

GANIX: (*berex*) Aufa!

JAUREGI: Ez nitek suhi hoberik nahi! Pilotari handia, sosduna, batere ez phesta egilea!

GANIX: (*berex*) Aufa! Aufa!

PIARRES: Jauregi, etzare beraz gaitzikor?

JAUREGI: Berritz ere erraten daiat ezetz, gizona.

PIARRES: Beraz Maitena hitzematzen ahal diozu Ganixi, ez da zu eta ni baino gogorrago!

JAUREGI: Ganix ez dela gogorra?

GANIX: (*hurbildurik*) Ez, Jauregi, Ez! Alegia arizan nitzautzu Gure Aitaren erraten! Barkatu! Zure alaba ez balitz aingeru bat izan, ez nintzen segur gogortuko!

JAUREGI: Gogo onez barkatzen daiat, Ganix. Topa zak esku hau! Hire duk Maitena, berak hala nahi badu!

PIARRES: Zaude trankil badakitela elgarren berri bi uso ttipi horiek!

GANIX: Milesker, Jauregi! Eta hiri ere milesker,
Piarres: helduden igandean tripako her-
tzeak Bidarteko plazan lehenago utziko
ditiak hiri partida galarazi dutan baino!

JAUREGI: Eta partida irabazi eta bigak nere etxe-
rat ethorriko zaizte delako bildots eta oilo-
ak, Maitenak emanik, jateko!

PIARRES: Aufa!

GANIX: Aufa! Aufa!

JAUREGI: Aufa! Aufa! Aufa!

(Hiruak abiatzen dire kaborat).

ZERBITZARIA: *(ondotik)* Aufa eta maufa nahi
baduzue, bainan batek arno xuri hau paga
deзадala eni!

GANIX: Zuzen duk! Eta horra oraino berrogoi
soseko bat konduaren gainerat!

ZERBITZARIA: Nik ere beraz: Aufa!

ZERBITZARI